

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

**Fundación
Gipuzkoako Parketxe Sarea
Fundazioa**

2017





AURKIBIDEA/ÍNDICE

| | |
|---|----|
| LABURDURAK..... | 5 |
| I. SARRERA..... | 7 |
| II. IRITZIA..... | 9 |
| II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia..... | 9 |
| II.2 Kontuei buruzko iritzia..... | 9 |
| III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK..... | 10 |
| III.1 Langileria..... | 10 |
| III.2 Ondasun eta zerbitzuen kontratazioa..... | 10 |
| III.3 Beste alderdi batzuk..... | 11 |
| IV. URTEKO KONTU LABURTUAK..... | 12 |
| ERANSKINAK..... | 15 |
| A.1 Araudi aplikagarria..... | 15 |
| A.2 Ibilgetu ukiezina eta materiala..... | 16 |
| A.3 Zordunak, hartzekodunak eta kobratu eta ordaintzeko beste kontu batzuk..... | 17 |
| A.4 Funts propioak..... | 17 |
| A.5 Jasotako diru-laguntzak..... | 18 |
| A.6 Salmentak eta merkataritzako jardueraren bestelako sarrerak..... | 18 |
| A.7 Langileria-gastuak..... | 19 |
| A.8 Jardueraren beste gastu batzuk..... | 19 |
| A.9 Kontratuen analisia..... | 20 |
| ALEGAZIOAK..... | 21 |



| | |
|---|-----------|
| ABREVIATURAS | 31 |
| I. INTRODUCCIÓN..... | 33 |
| II. OPINIÓN..... | 35 |
| II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad | 35 |
| II.2 Opinión sobre las cuentas | 35 |
| III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN | 36 |
| III.1 Personal | 36 |
| III.2 Contratación de bienes y servicios | 36 |
| III.3 Otros aspectos | 37 |
| IV. CUENTAS ANUALES ABREVIADAS | 38 |
| ANEXOS | 41 |
| A.1 Normativa aplicable..... | 41 |
| A.2 Inmovilizado intangible y material | 42 |
| A.3 Deudores, acreedores y otras cuentas a cobrar y a pagar..... | 43 |
| A.4 Fondos propios..... | 43 |
| A.5 Subvenciones recibidas..... | 44 |
| A.6 Ventas y otros ingresos de la actividad mercantil..... | 44 |
| A.7 Gastos de personal..... | 45 |
| A.8 Otros gastos de la actividad..... | 45 |
| A.9 Análisis de contratos | 46 |
| ALEGACIONES | 47 |



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

GFA Gipuzkoako Foru Aldundia.

KBA Kontrataziorako barne aginpideak.

SPKLTB 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onesten duena.





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (aurrerantzean Epaitegia) otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onartutako Lanerako Planean jasotakoari jarraikiz, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren (aurrerantzean, Fundazioa) 2017ko Urteko Kontuak fiskalizatu ditu.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkoak: ezargarria den arautegia bete dela egiaztatzea ekonomia eta finantza, langileria eta ondasun eta zerbitzuko kontratuetan.
- Kontularitzakoak: urteko kontuak ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datozela egiaztatzea. Fundazioa auditatu izan da; honenbestez, gure lana auditoreen lan paperak berrikustera mugatu da eta hala behar izan denean, egoki irizitako proba osagarriak egin ditugu.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi dela ere, azalerraturako hutsak “Barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak” idazpuruan xehetasunez jaso ditugu.

Fundazioa eskritura publiko bitartez 2009ko abenduaren 23an eratu zen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatu, 2010eko maiatzaren 10ean. Hasierako ondare-zuzkidura 39.000 euro izan zen, entitate fundatzaileek egindako diru-ekarpenez osatua:

| | Euroak milakotan |
|-----------------------------|------------------|
| ENTITATE FUNDATZAILEA | Zenbat. |
| GFA..... | 30 |
| Kutxa Banku Fundazioa | 5 |
| Aiako Udala..... | 1 |
| Ataungo Udala | 1 |
| Oiartzungo Udala | 1 |
| Oñatiko Udala | 1 |
| GUZTIRA | 39 |

2014an, Anduetza baserriaren interpretazio-zentroa Parketxeen Sarera gehitzearekin, Zegamako Udala Patronatuko kide bihurtu zen eta fundazioaren zuzkidurari 1.000 euroren ekarpena egin zion.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2017ko abenduaren 31n Fundazioko Patronatuaren kideak 11 dira:

| Patronatuko kideak | Ordezkariek |
|-----------------------------|-------------|
| GFA..... | 4 |
| Kutxa Banku Fundazioa | 2 |
| Aiako Udala..... | 1 |
| Ataungo Udala | 1 |
| Oiartzungo Udala | 1 |
| Oñatiko Udala | 1 |
| Zegamako Udala | 1 |
| GUZTIRA | 11 |

Fundazioa euskal sektore publikoaren atal da. Helburua Gipuzkoako Natura Parkeen kudeaketa erabatekoa egitea da. Horretarako, Fundazioak, besteak beste, honako jarduera hauek bideratuko ditu:

- Gipuzkoako Parketxeen Sare bat sortu, indartu eta hedatzea bultzatzea, irizpide homogeen bidez kudeatzeko.
- Gipuzkoako Parketxeen Sarearen kudeaketa integrala egitea eta dinamizatzea.
- Parketxeen Sare horren bitartez, ingurumen-hezkuntza, ingurumen naturalaren ezagutza eta ingurumena errespetatzeko baloreak hedatzea, bai herritarren artean orokorrean, bai gipuzkoarren artean zehatzago.
- Parketxeen Sarearen bitartez indartu eta sustatzea naturarekin eta jarduera ludikoekin lotutako aisialdi, boluntariora eta turismoko jarduerak, natur ingurunearekin harmonian.
- Azterketa edo ikerketa proiektuak egitea, Natura Parkeen egoera eta beharrianak sakonago ezagutzera emanak eta irakaspen erabilgarriak eskuratzeko bide emango dutenak.
- Sektore publikoaren eta sektore pribatuaren arteko lankidetzak bultzatu aurreko paragrafoetan adierazitako balioak sustatzeko. Bereziki, ekimen zehatzetan esku hartu ahal izango du, eta horiek onbideratzen lagun dezaketen eragile publiko zein pribatuak txertatzea sustatu.
- Oro har, zuzenean nahiz zeharka Gipuzkoako Natura Parkeen Sarea sustatu eta hobetzen lagunduko duten ekimen mota oro gauzatzea.

Gipuzkoako Parketxeen Sarea honako hauek osatzen dute:

- Arditurriko Parketxea Aiako Harriko Natura Parkea.
- Iturrarango Parketxea Pagoetako Natura Parkea.
- Lizarrusti eta Barandiarango Parketxe hedatua Aralarko Natura Parkea.
- Anduetza eta Arantzazuko Parketxe hedatua. Aizkorri-Arazko Natura Parkea.

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

KONTRATAZIOA

1. Arantzazuko Parketxea artatu eta dinamizatzeko zerbitzua, 192.000 euroren balio zenbatetsia duena, publikotasunik gabeko prozedura ireki bitartez esleitu da; ordea, Kontrataziorako Barne Jarraibideei jarraikiz, prozedura irekia edo murriztua baliatu behar zatekeen (A.9ko 1 espediente).
2. Fundazioak Arantzazuko aterpetxearen erabilera eta kudeaketa lizitatu ditu (arreta eta dinamizazioa) publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez, preziorik gabe eta prozedura hori erabiltzea justifikatuko duten arrazoiak aurrez egiaztatu gabe, lehia mugatuz; alabaina, aterpetxea lagatzeko ondare-kontratu bat izapidetu behar zatekeen. (A.9ko 2 espediente).
3. 2017an Iturrarango Parketxeko arreta eta dinamizazio zerbitzuaren exekuzioa 140.064 eurorena izan da eta % 40 gainditu du luzapenaren urteko zenbatekoa -99.996 euro-, kontratuaren bolumen ekonomikoa desitxuratuz (A.9ko 3 espediente).

Epaitegi honen ustetan, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak, 1etik 3ra bitarteko paragrafoetan aipatutako lege hausteak alde batera, zuzentasunez bete du 2017ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2 KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Fundazioak ez ditu erregistratu Egoeraren Balantzeko “ibilgetua” eta “ondare garbia” idazpuruetan aurreko ekitaldietan jasotako ondasunen doako lagapenak (ikus A.2). Txostena egin dugun datan ez dago horien gaineko baloraziorik.

Epaitegi honen iritzira, aurreko paragrafoan azaldutako ez-betetzea alde batera, 2017ko ekitaldiaren Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren 2017ko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, araudian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasotzen dira jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak nahiz kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak.

III.1 LANGILERIA

- Fundazioko gerentearekin izenpetutako lan kontratua lan-arautegi arruntari lotzen zaio; ordea, estatutuetan zehaztutako ezaugarriak aintzat hartuta (egitekoak eta Patronatuak ebazpen arrazoitu bidez noiznahi kargugabetzeko erabakia hartu ahal izateko aukera) goi zuzendaritzako langileei egin ohi zaien izaera bereziko lan araudia aplikatu behar zitzaiokeen (1382/1985 Errege Dekretua, abuztuaren 1ekoa).

III.2 ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK KONTRATATZEA

2017ko ekitaldian esleitutako kontratazioko 2 espediente aztertu ditugu eta lehenagoko ekitaldietan esleitu arren, 2017ko ekitaldian egikaritu diren beste 4 kontratu, zeinaren 2017rako luzapenek 339.417 euro egin baitute (ikusitako A.9); hona hemen xehetasunak:

- Arantzazuko Parketxea artatu eta dinamizatzeko zerbitzuaren eta Arantzazuko aterpetxea erabili eta kudeatzeko (arreta eta dinamizazioa) zerbitzuaren espedienteetan (1 eta 2 espedienteak), 94.608 euroan esleitutakoetan, ez da justifikatzen eskaintzei emandako puntuazioa balio-judizioen baitako irizpideetan.
- Fundazioak ez du eskatu parketxeak artatu eta dinamizatzeko kontratuetan kontzeptu bakoitzeko fakturatu beharreko unitateen xehakapena, edo emandako zerbitzuen zerrenda balioztatua, pleguek agintzen duten moduan.
- Aztertu ditugun kontratuetan ikusi dugu guztira 246.443 euro ordaindu direla (aztertutakoaren % 65) 30 eguneko gehieneko epea gaindituta, merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriei buruzko abenduaren 29ko 3/2004 Legearen 4. artikulua finkatzen duena.

Hona hemen alor honekin lotutako beste alderdi aipagarri batzuk:

- Fundazioak esleitzen dituen kontratuak ez dira Sektore Publikoko Kontratuaren inongo erregistroan inskribatzen eta kontratatzailearen profila ez da kontratazioko inongo plataformatan jasotzen, SPKLTBren 333 eta 334 artikuluek agintzen duten moduan.
- Fundazioak urtero kontratatzen du aholkularitza zerbitzua. Traktu jarraituko kontratua dela aintzat hartuta, Sozietateak kontratu horiek lizitaziora atera behar lituzke egiazko balioespen ekonomikoarekin bat datorren prozedura baliatuta eta lehia bideratuko duen denborazko mugarekin.



III.3 BESTE ALDERDI BATZUK

- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea zuzen betetzeko, Fundazioak argitaratu behar lituzke aurrekontuak, izenpetutako hitzarmenak, urteko kontuak eta dagozkion auditoriako txostenak. Gainera, izenpetutako kontratu guztiei dagokienez, 8.1 a) artikuluan adierazitako alderdi guztiak argitaratu behar lituzke.
- 2017ko ekitaldian aldaketa bat aplikatu zaio Zegamako Udalarekin izenpetutako hitzarmenari -Patronatuak 2016ko abenduan erabakitakoa-, baina lana egin dugun datan ez da aldaketa hori izenpetu Udalarekin.
- Fundazioak erabilera publikoko eta ingurumen-hezkuntzako zerbitzuak ematen ditu Pagoetako Natura Parkean dagoen eta GFaren jabetzako eraikina den Agorregiko burdinolan; ez da, baina, dagokion erabilera-lagapena tramitatu.
- Ez dira gaurkotu sinadura baimenduak finantza-erakundean funtsak erabiltzeko, izan ere, gerenteaz gain 2011n kargugabetutako bi kidek dute sinadura.
- Lizarrustiko Parketxean ostalaritzako negozioaren tokiko errentamenduaren 2013ko kontratuaren arabera, esleipendunak Fundazioari urtean 3.000 euroren zenbateko finko batez gain, zati aldakor bat ordaindu beharko dio; zati hori ez da urteko 3.000 euro baino gehiago izango eta ebaluazio-batzorde batek finkatuko du. 2017an zati finkoaren zenbatekoa soilik jaso da, ez delako ebaluazio-batzordea deitu.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV. URTEKO KONTU LABURTUAK EGOERAREN BALANTZE LABURTUA

| | | Euroak milakotan | |
|--|---------|------------------|------------|
| | Eransk. | 2017 | 2016 |
| AKTIBO EZ ARRUNTA | | 84 | 81 |
| Ibilgetu ez-materiala | A.2 | - | 1 |
| Ibilgetu materiala..... | A.2 | 84 | 80 |
| AKTIBO ARRUNTA | | 193 | 234 |
| Izakinak | | 27 | 27 |
| Merkataritzako zord. eta kobratz. beste knt. b..... | A.3 | 22 | 28 |
| Epe motzeko finantza inbertsioak | | 2 | 2 |
| Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk ... | | 142 | 177 |
| AKTIBOA, GUZTIRA | | 277 | 315 |
| ONDARE GARBIA | | 173 | 166 |
| Funts propioak | A.4 | 110 | 105 |
| Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak | A.5 | 63 | 61 |
| PASIBO EZ-ARRUNTA | | 7 | 7 |
| Epe luzeko zorrak | | 7 | 7 |
| PASIBO ARRUNTA | | 97 | 142 |
| Epe motzeko zorrak..... | | 1 | 11 |
| Merkat. hartzekod. eta kobratz. beste knt. b. | A.3 | 96 | 131 |
| ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA | | 277 | 315 |




Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

B. EMAITZEN KONTU LABURTUAK

| | | Euroak milakotan | |
|--|---------|------------------|------------|
| | Eransk. | 2017 | 2016 |
| EKITALDIAREN SOBERAKINA | | | |
| Berezko jardueraren sarrerak | A.5 | 605 | 620 |
| Salmentak eta merkataritzako jardueraren bestelako sarrerak | A.6 | 137 | 90 |
| Hornikuntzak | | - | (1) |
| Jardueraren bestelako sarrerak..... | | - | 4 |
| Langileria-gastuak..... | A.7 | (65) | (65) |
| Jardueraren beste gastu batzuk | A.8 | (671) | (641) |
| Ibilgetua amortizatzea | A.2 | (16) | (19) |
| Ekit. soberakinera eskualdatutako kapitalezko diru-laguntzak | A.5 | 15 | 19 |
| Jardueraren soberakina | | 5 | 7 |
| Zerga aurretiko soberakina | | 5 | 7 |
| Ondare garbiaren bariazioa, ekitaldiaren soberakinean jasotakoa | | 5 | 7 |
| ONDARE GARBIAN ZUZENEAN JASOTAKO SARRERA ETA GASTUAK GUZTIRA | | | |
| Ondare garbiaren bariazioa, zuzenean ondare garbian jasotako sarr. eta gastu kontzeptuan. Jasotako diru-laguntzak | A.5 | 17 | 18 |
| EKITALDIKO SOBERAKINARI BIRSAILKAPENAK | | | |
| Ekit. soberakinari egindako birsailkapenen ondorioz ondare garbiaren bariazioa Jasotako diru-laguntzak | A.5 | (15) | (19) |
| ONDARE GARBIAREN BARIAZIOA, ONDARE GARBIAN ZUZENEAN JASOTAKO SARRERA ETA GASTUENGATIK | | | |
| | | 2 | (1) |
| EMAITZA GUZTIRA ONDARE GARBIAREN BARIAZIOA EKITALDIAN | | | |
| | | 7 | 6 |





ERANSKINAK

A.1 ARAUDI APLIKAGARRIA

Fundazioak bere Estatutuak ditu eta ekainaren 2ko Euskal Herriko Fundazioen 9/2016 Legeak arautzen du; baita ekainaren 19ko 100/2007 eta 101/2007 dekretuek ere, hurrenez hurren Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren erregelamenduak onartzen dituztenak.

Finantza-informazioaren arauzko esparruari dagokionez, Irabazi Asmorik gabeko Entitateen Kontabilitate Plan Orokorra baliatzen du, 2013ko martxoaren 26ko Kontuen Kontabilitate eta Auditoriako Institutuaren Ebazpen bitartez onartutakoa.

Obra, ondasun eta zerbitzuen kontratazioari dagokionez, SPKLTBren arabera, Fundazioak aginte esleitzaileria izaera du eta bere kontratuak pribatuak dira. Europar Batasuneko gutxieneko mailak (erregulazio harmonizatuari lotuak) gainditzen dituzten kontratuak prestalanari eta esleipenari dagokionez, berariazko araurik ezean, SPKLTBk arautuko ditu. Europar Batasuneko atalaseak gainditzen ez dituztenek, onetsitako eta kontratatzailearen profilean argitaratutako Kontrataziorako Barne Jarraibideak aplikatu beharko dituzte esleipenean. Kasu guztietan publikotasun, lehia, gardentasun, konfidentzialtasun, berdintasun eta ez-bazterkeria printzipioak gorde beharko dira.

Langileen hautaketa egiteko, deialdiaren berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publikotasun printzipioak jarraitzen dira.

Bestalde, 19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, gardentasun, informazio publikorako irispide eta gobernamentu onari buruzkoak, fundazioak barne hartzen ditu aplikazio eremuan.



A.2 IBILGETU UKIEZINA ETA MATERIALA

Hona hemen 2017ko ekitaldiko ibilgetu ukiezin eta materialean barne hartutako kontuen mugimenduen xehakapena:

| KONTZEPTUA | Euroak milakotan | | | | | | |
|--|------------------|---------------------|-----------|------------------|---------------------|--------------|-----------|
| | Saldoa 16.12.31n | | | Amortiz. zuzkid. | Saldoa 17.12.31n | | |
| | Kostua | Amortizazio metatua | Altak | | Amortizazio metatua | Garbia | |
| Ibilgetu ez-materiala | | | | | | | |
| Garapena..... | 14 | (13) | - | (1) | 14 | (14) | - |
| Aplikazio informatikoak | 13 | (13) | - | - | 13 | (13) | - |
| GUZTIRA | 27 | (26) | - | (1) | 27 | (27) | - |
| Ibilgetu materiala | | | | | | | |
| Eraikuntza-lanak Lizarrustin..... | 4 | - | - | - | 4 | - | 4 |
| Instalakuntza teknikoak | 27 | (18) | - | (1) | 27 | (19) | 8 |
| Lizarrusti eta Barandiarango makineria ... | 10 | (5) | 1 | (1) | 11 | (6) | 5 |
| Bestelako instalazioak | 72 | (27) | 18 | (9) | 90 | (36) | 54 |
| Altzariak | 36 | (20) | - | (4) | 36 | (24) | 12 |
| Informazio prozesuko ekipoak | 8 | (7) | - | - | 8 | (7) | 1 |
| Garraio gaiak | 19 | (19) | - | - | 19 | (19) | - |
| GUZTIRA | 176 | (96) | 19 | (15) | 195 | (111) | 84 |

Fundazioa ez da bere jarduera-esparruan dituen Parketxeen Sarearen jabe.

Arditurri eta Anduetzako Parketxeak Parketxeen Sarean integratu ziren Oiartzungo Turismo Aukerak, SArekin (Oiartzungo Udalaren sozietate publikoa) eta Zegamako Udalarekin, hurrenez hurren, 2010ean eta 2014an sinatutako hitzarmenen ondorioz. Fundazioak jardun-eremuan dituen gainerako eraikinen erabilera doan jaso du.

2010ean GFak doan laga zion Fundazioari Iturraran eta Lizarrustiko parketxeen erabilera 25 urtez, gehienez 50 urtera arte luzagarriak. Urte hartan bertan, Ataungo Udalak Fundazioari doan laga zion 10 urtetarako, 50 urtera arte luzagarri, Barandiaran Museoaren erabilera, Joxe Miel Barandiaranen obra zabaltzeko, eta Parketxeen Sarean integratu zuen.

Halaber, 2011n Arantzazuko frantziskotarren anaiarteak doan laga zion Fundazioari Arantzazuko Parketxearen erabilera, zeina Aizkorri-Aratz natura parkearen natura interpretatzeko gunetarako erabiliko baita 2028ko abenduaren 31ra arte, luzatzeko aukerarekin. Eta 2016an Arantzazu Gaur Fundazioak doan laga zion Fundazioari Arantzazuko aterpetxearen aldi bateko erabilera, Santutegiaren eta Arantzazuko natura eremuaren bisitarietarako ostatu xume bat eskaintzearen, lau urte luzagarriko eperako.

Fundazioaren ibilgetuak jasotzen ditu aipatutako lagapenen ondoren Fundazioak erositako ondasunak; ez ditu, baina, lagapenean jasotako ondasunak balioztatatu.



A.3 ZORDUNAK, HARTZEKODUNAK ETA KOBRATU ETA ORDAINTZEKO BESTE KONTU BATZUK

Merkataritzako zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk honako hauei dagozkie:

| KONTZEPTUA | Euroak milakotan | |
|---|------------------|-----------|
| | 31.12.17 | 31.12.16 |
| Salmenta eta zerbitzuak emateagatiko bezeroak | 13 | 6 |
| GFA dirulaguntzengatik zordun | 4 | 17 |
| Ataungo Udala dirulaguntzengatik zordun | 5 | 5 |
| GUZTIRA | 22 | 28 |

Hona hemen “Merkataritzako zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk” idazpuruaren xehakapena:

| KONTZEPTUA | Euroak milakotan | |
|--|------------------|------------|
| | 31.12.17 | 31.12.16 |
| Dinamizazio enpresa hartzekodunak | 42 | 68 |
| Zegamako Udala | 20 | 20 |
| Oiartzungo Turismo Aukerak SA | 20 | 21 |
| Bestelako hartzekodunak | 8 | 14 |
| Bezeroei aurrerakinak | 1 | 3 |
| Ogasun publikoa, egindako atxikipenengatik hartzekodun | 3 | 3 |
| Gizarte segurantzaren organismoak, hartzekodunak | 2 | 2 |
| GUZTIRA | 96 | 131 |

A.4 FUNTS PROPIOAK

Hona hemen funts propioen eragiketak ekitaldian:

| KONTZEPTUA | Euroak milakotan | | | |
|---|------------------|-------------|---------------|------------|
| | 16.12.31 | Gehikuntzak | Eskualdaketak | 31.12.17 |
| Fundazioaren dotazioa..... | 40 | - | - | 40 |
| Aurreko ekitaldietako soberakinak | 58 | - | 7 | 65 |
| Ekitaldiaren soberakina | 7 | 5 | (7) | 5 |
| GUZTIRA | 105 | 5 | - | 110 |

2017ko abenduaren 31n Fundazioaren zuzkidura osatzen dute fundatzaileek sorreran egindako hasierako ekarpenek eta 2014an Zegamako Udalak Fundazioari egindako 1.000 euroren ekarpen batek.

A.5 JASOTAKO DIRULAGUNTZAK

Fundazioak 2011ko ekitaldiaz geroztik kapitalezko dirulaguntzak jaso ditu ibilgetuan inbertsioak finantzatzeko, zeinak ekitaldiko soberakinari egozten baitzaizkio finantzatutako ondasunen amortizazioaren proportzioan. Hona hemen dirulaguntza hauek 2017an izan duten xehakapena:

| EMAKIDA URTEA | 16.12.31 | Euroak milakotan | | |
|---------------------|-----------|-----------------------|----------------------|-----------|
| | | Jasotako dirulaguntz. | Soberakinari egotzia | 17.12.31 |
| 2011 eta 2012 | 14 | - | (6) | 8 |
| 2013 | 8 | - | (2) | 6 |
| 2014 | 10 | - | (2) | 8 |
| 2015 | 13 | - | (2) | 11 |
| 2016 | 16 | - | (2) | 14 |
| 2017 | - | 17 | (1) | 16 |
| GUZTIRA | 61 | 17 | (15) | 63 |

Gainera, 2017ko ekitaldian Fundazioak honako dirulaguntza hauek jaso ditu bazkideengandik ustiapeneko gastuak finantzatzeko:

| KONTZEPTUA | Euroak milakotan | |
|-----------------------------|------------------|------------|
| | 2017 | 2016 |
| GFA | 475 | 475 |
| Kutxa Banku Fundazioa | 30 | 30 |
| Aiako Udala | 20 | 20 |
| Ataungo Udala | 20 | 20 |
| Oiartzungo Udala | 20 | 20 |
| Oñatiko Udala | 20 | 20 |
| Zegamako Udala | 20 | 35 |
| GUZTIRA | 605 | 620 |

A.6 SALMENTAK ETA MERKATARITZAKO JARDUERAREN BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen diru-sarrera horien xehakapena:

| KONTZEPTUA | Euroak milakotan | |
|--|------------------|-----------|
| | 2017 | 2016 |
| Dinamizazioa | 98 | 52 |
| Sarrerak | 34 | 34 |
| Aterpetxearen eta Lizarrusti jatetxearen errentamendu kanona | 3 | 3 |
| Bestelako sarrerak | 2 | 1 |
| GUZTIRA | 137 | 90 |

A.7 LANGILERIA-GASTUAK

Honako hauek dira langile gastuak:

| KONTZEPTUA | Euroak milakotan | |
|--|------------------|-----------|
| | 2017 | 2016 |
| Soldata eta ordainsariak..... | 49 | 49 |
| Enpresaren konturako Gizarte Segurantzza | 15 | 15 |
| Beste gizarte-gastu batzuk..... | 1 | 1 |
| GUZTIRA | 65 | 65 |

2017an ez da soldata igoerarik izan. Fundazioak langile bakarra du, gerentea, eta lan kontratu mugagabea du.

A.8 JARDUERAREN BESTE GASTU BATZUK

Hona hemen 2017ko ekitaldiko “jardueraren beste gastu batzuen” xehakapena eta aurreko ekitaldiarekiko konparaketa:

| KONTZEPTUA | Euroak milakotan | |
|---|------------------|------------|
| | 2017 | 2016 |
| Errentamenduak eta kanonak..... | 7 | 6 |
| Konponketak eta artapena | 2 | 1 |
| Garraioak | 10 | 10 |
| Aseguru primak | 8 | 8 |
| Publizitatea eta komunikazioa | 5 | 2 |
| Hornidurak | 56 | 41 |
| Dinamizazioa | 438 | 432 |
| Zerbitzu profesionalak | 24 | 22 |
| Ekipamenduaren mantentze-lanak..... | 51 | 47 |
| Eraikinen mantentze lanak..... | 42 | 34 |
| Bestelako gastuak..... | 24 | 36 |
| Bestel. tributuak | 4 | 2 |
| JARDUERAREN BESTE GASTU BATZUK GUZTIRA | 671 | 641 |

Kontzeptu nagusia parketxeak artatu eta dinamizatzek eragindako gastuak osatzen du, kontraturiko enpresa dinamizatzaileek fakturatutakoak. Hona hemen “dinamizazioa” kontuaren xehakapena parketxeen arabera:

| PARKETXEA | Euroak milakotan | |
|-----------------------------|------------------|------------|
| | 2017 | 2016 |
| Arditurri | 97 | 96 |
| Iturraran..... | 145 | 139 |
| Lizarrusti-Barandiaran..... | 94 | 96 |
| Arantzazu | 47 | 38 |
| Anduetza | 55 | 63 |
| GUZTIRA | 438 | 432 |

A.9 KONTRATUEN ANALISIA

2017ko ekitaldian esleitutako honako zerbitzu-kontratu hauek aztertu dira:

| ESLEITUTAKO KONTRATUAK | | Euroak milakotan | | | |
|---|---------|------------------|-----------|-----------|---------|
| ZK. XEDEA | Prozed. | Esleipena | | Exekuzioa | |
| | | Zenbat. | 2017 | 2017 | Akatsa |
| 1. Arantzazuko Parketxea artatu eta dinamizatzea (*)..... | PGN | 95 | 47 | 41 | A, D, E |
| 2. Arantzazuko aterpetx. erab. eta kudea. (artatu eta dinam.) . | PGN | - | - | - | B, D |
| GUZTIRA | | 95 | 47 | 41 | |

(*) Balio zenbatetsia: 192.000 euro.

PGN: Publikotasunik gabeko negoziatua

Gainera, aurreko ekitaldietan esleitutako zerbitzu-kontratuen luzapenak aztertu ditugu, 2017an indarrean zeudenak:

| LUZAPENAK | | Euroak milakotan | | |
|--|-------------------|------------------|------------|--------|
| ZK. XEDEA | Urteroko luzapena | Zenbat. | Exekuzioa | |
| | | 2017 | 2017 | Akatsa |
| 3. Iturrarango Parketxea artatu eta dinamizatzea | | 100 | 140 | C, E |
| 4. Arditurriko Parketxea artatu eta dinamizatzea..... | | 91 | 91 | E |
| 5. Aralarko Parketxe hedatua artatu eta dinamizatzea (Lizarrusti-Barandiaran Parketxea) | | 91 | 91 | E |
| 6. Anduetzako Parketxea artatu eta dinamizatzea..... | | 58 | 54 | E |
| GUZTIRA | | 340 | 376 | |

AKATSAK:

A: PGN bidez esleitua, Kontratuzorako Barne Jarraibideei jarraikiz prozedura irekia edo murriztua baliatu behar zenean.

B: Iritziaren atalean adierazitako akats espezifikoak.

C: Exekuzioa esleipen-zenbatekoa baino % 40 handiagoa.

D: Balio judizioari meneratutako irizpideen puntuazioa justifikatu gabe.

E: Ez dago esleipendunak emandako zerbitzuen gaineko informazio xehaturik.

GIPUZKOAKO PARKETXE SAREA FUNDAZIOAREN FISKALIZAZIOAREN EMAITZEI EGINDAKO ALEGAZIOAK, 2017. URTEAN

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

KONTRATAZIOA

“1.- Arantzazuko Parketxearen arreta eta dinamizazio zerbitzua, 192.000 euroko balio zenbatetsia duena, publizitaterik gabeko prozeduraren bitartez esleitu da; alabaina, Kontratazioarako Barne Jarraibideei jarraikiz, prozedura irekia edo murriztua baliatu behar zuen (A.9ko 1 espedientea).”

Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren patronatuak, 2016ko ekainaren 24an egindako bileran, aho batez onartu zuen 001/2016 espedientea (gai zerrendaren 5. puntua), “Parketxea eta Arantzazuko aterpetxea erabili eta kudeatzea: zentroen arreta eta dinamizazioa” izeneko zerbitzua kontratatzeko.

Fundazioaren patronatuak, zenbatekoa eta edukia ikusita, eta berme eta gardentasun handiagoa eskaintzeko, kontratua prozedura irekiaren bitartez esleitu zuen. Onarriak kontratatzailearen profilean argitaratu ziren, ekainaren 28an. Proposamenak aurkezteko epea 2016ko uztailaren 19an amaitu zen. Proposamen bakarra, Artelatz Ingurumen Zerbitzuak SL aurkeztutakoa izan zen.

Kontratazio mahaia 2016ko uztailaren 27an bildu zen, aurkeztutako proposamena aztertu eta baloratzeko. Azterketa egin ondoren, lizitazioa hutsik uzteko proposamen bat egin zuen aurkeztutako eskaintza ezin zelako onartu. Izan ere, ez zuen aurreikusten aterpetxearen arreta eta dinamizazio zerbitzuen prestazioa, lizitatzailerak ez baitzeukan bitartekorik horretarako. Beraz, ez zuen betetzen Administrazio Klausulen Agirien 2. eta 13. ataletan, eta Preskripzio Teknikoen Agiriaren 1. eta 3. ataletan xedatutakoa. Horrela, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren kontratazio mahaiaren 2016ko uztailaren 27ko ebazpenaren bitartez, lizitazioa hutsik deklaratu zen.

Aurrekoa kontuan hartuta, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren patronatuak, 2016ko abenduaren 22ko bileran, aho batez onartu zuen (gai zerrendaren 4. eta 5. puntuak, hurrenez hurren) Arantzazuko parketxeko arreta eta dinamizazio zerbitzuak kontratatzeko agiriak eta Arantzazuko aterpetxeko arreta eta dinamizazio zerbitzuak kontratatzeko agiriak, biak publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez.

Patronatuaren aktan ikus daitekeen bezala, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez eta hainbat lizitatzailerik gonbidapena bidaliz, bi kontratu independente esleitzeko planteamenduaren arrazoia da aurreko saioan huts egin zela bi espazioen kudeaketa eta dinamizazioa prozedura irekiaren bitartez batera esleitzerakoan.

Laburbilduz, Arantzazuko parketxeko arreta eta dinamizazio zerbitzua, urteko 48.000 euroko zuzkidura duena eta lau urterako 192.000 euroko balio zenbatetsia duena, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez lizitatzeko arrazoi nagusia izan da ahalik eta proposamen gehien aurkeztea lortu nahi izatea.



Zentzu honetan, esan behar da, hiru entitateei parte hartzeko gonbidapena bidali ondoren, bik bakarrik aurkeztu zutela proposamena.

“2.- Fundazioak Arantzazuko aterpetxearen erabilera eta kudeaketa lizitatu ditu (arreta eta dinamizazioa) publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez, preziorik gabe eta prozedura hori erabiltzea justifikatuko duten arrazoiak aurrez egiaztatu gabe, eta lehia mugatuz; alabaina, aterpetxea lagatzeko ondare-kontratu bat izapidetu behar zuen. (A.9ko 2 espedientea).”

II.1.1. puntuaren alegazioan adierazitakoaz gain, hau da, zer arrazoi egon ziren fundazioaren patronatuak Arantzazuko parketxeko arreta eta dinamizazio zerbitzuak kontratatzeko agiriak eta Arantzazuko aterpetxeko arreta eta dinamizazio zerbitzuak kontratatzeko agiriak banaka lizitatzeko, eta biak ere publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez; horren inguruan honako hau adierazi behar da:

Arantzazu Gaur fundazioak eta Gipuzkoako Parketxe Sarea fundazioak Arantzazuko aterpetxearen lagapen kontratu bat sinatu zuten 2016ko ekainaren 20an, eta kontratuaren indarraldia 2019ko ekainaren 20an amaitzen zen.

Aldi berean, 2016ko urtarrilaren 1eko kontratuaren bitartez, Arantzazuko Santutegiko Frantziskotarren Komunitateak Arantzazu Gaur Fundazioari lagatu zion Oñatiko Arantzazun dauden Gandiaga Topagunea I eta II eraikinen (aterpetxea bertan kokatzen da) aldi baterako erabilera, lau urterako, zehazki, 2016ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31ra arte. Kontratu horretan, Arantzazu Gaur Fundazioak baimena zuen aterpetxearen aldi baterako kudeaketa lagatzeko Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioari, zeinak, aldi berean, hirugarren bati lagatu ahalko zion, baldintza batzuk errespetatuz.

2016ko ekainaren 20an, Arantzazu Gaur fundazioaren eta Gipuzkoako Parketxe Sarea fundazioaren artean sinatutako kontratuan adierazten da lagapen hartzaileak ostatu zerbitzua eskainiko duela zuzenean edo hirugarren baten bitartez. Azken kasu honetan, aterpetxearen kudeaketa hirugarren bati lagatzeak ez du aske uzten lagapen hartzaile kontratuaren betebeharretatik, lagapen hartzaileak erantzukizun pertsonala eta erantzukizun nagusia izaten jarraituko baitu.

Horrenbestez, baztertu egin zen ondare kontratuaren formula erabiltzea aterpetxearen arreta eta dinamizazio zerbitzua eskaintzeko, testuinguru horretan ez zelako egokiena.

Bestalde, kontratuaren doakotasunari dagokionez, honako hau azpimarratu behar da:

2016ko ekainaren 20an, Arantzazu Gaur fundazioaren eta Gipuzkoako Parketxe Sarea fundazioaren artean sinatutako lagapen kontratuan, nahitaez betebeharreko baldintza batzuk aurreikusten dira aterpetxearen arreta eta dinamizazio zerbitzua azken erakunde horrek lizitatzean. Hauek dira, hain zuzen:

«Erromes izaera duten aterpetxearen erabiltzaileei aplikatu beharreko prezioa ez da izango 11/2015 Foru Dekretuak, urtarrilaren 19koak, edo hori aldatzen duen araudiak ezarritako tarifa murriztuena baino handiagoa. "Inaziotar bidearen" erromesa edo bestelako bideen



erramesa dela egiaztatzeko, Santutegiko Frantziskotarren Komunitateak emandako baimena edo bidearen egiaztatutuna aurkeztu beharko da».

«Erabiltzailearen arretarako zerbitzua: arreta telefonikoa nahitaezkoa izango da egunean 24 ordutan, noizbehinkako beharrak argitzeko, eta, larrialdi kasuan, aterpetzeko arduradun bat bertaratu beharko da, gutxienez, 15-30 minututan».

Argi dago baldintza horiek murriztu egiten dituztela egon litezkeen diru sarrerak eta nabarmen handitzen dituztela langile kostuak (eskatutako prestasuna kontuan hartuta); beraz, lizitatzen den zerbitzua ez da bereziki errentagarria eta erakargarria lizitataile potentzialentzat.

Bestalde, aterpetxean bazkariak eskaintzeko ezintasunak, ez du laguntzen errentagarritasun mugak hobetzen.

Aurrekoari gehitu behar zaio Gipuzkoako biztanlegune garrantzitsuenetatik urrun kokatuta dagoela eta klimatologia nahiko txarra duen leku bat dela, batez ere altueragatik (itsas mailatik 700 metrora dago). Gertaera horrek, batetik, murriztu egiten du bezeroak aterpetxera joateko denboraldia eta, bestetik, nabarmen garestitzen ditu zentroa berotzeko kontsumoak. Izan ere, aterpetzeko arreta eta dinamizazio zerbitzuak lizitzatzeko agiri teknikoen 5. eta 6. puntuetan ezartzen den bezala, Gipuzkoako Parketxe Sarea fundazioak bere gain hartzen ditu, besteak beste, zentroaren kontsumoak, urtean gehienez, 11.000 euro arte (BEZa barne).

Bistan da, beraz, preziorik gabeko lizitazioa zela aukera bideragarriena, bakarra ez esateagatik, aterpetxearen arreta eta dinamizazioa emateko zerbitzua gautzatzeko.

“3.- 2017an Iturrarango Parketxeko arreta eta dinamizazio zerbitzuaren exekuzioa 140.064 eurokoa izan da eta % 40 gairiditu du luzapenaren urteko zenbatekoa -99.996 euro-, kontratuaren bolumen ekonomikoa desitxuraturaz (A.9ko 3 espedienteak).”

Agorregiko multzo hidraulikoa balioan jartzeko zerbitzua, 15.000 eurokoa, fundazioak 2011. urtetik Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuari ematen dion zerbitzu berezi bat da. Horretarako, fundazioak urtearen hasieran jardura programa bat eta egutegi bat aurkezten dio Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuari, dirulaguntza bat eskatuz (I. eranskina). Era berean, fundazioak dagokion memoria aurkezten du ekitaldiaren amaieran (II. eranskina). Jardura programa eta egutegia aurkeztu ondoren, hala badagokio, Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuak foru agindu bat argitaratzen du fundazioari dirulaguntza izenduna emanez. Azken ekitaldietan 15.000 eurokoa izan da (III. eranskina). Dena den, iraganean, 2011. eta 2012. urteetan zenbatekoa handiagoa zen (22.550 euroak eta 20.250 euroak).

Aldi berean, fundazioak Arreta-Pagoeta enpresari jardura programa bat eta egutegi bat egitea eskatzen dio, Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuak Gipuzkoako Parketxe Sarea fundazioari diruz lagundutako zerbitzua emateko. Arreta Pagoeta enpresak urteak daramatza Pagoetako parke naturalean ingurumen hezkuntzako lanak egiten (fundazioa



sortu baino lehenagotik). Izan ere, Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuan aurkeztzen den programa eta egutegia dira. Arreta-Pagoeta SL enpresak fundazioari bidaltzen dizkion fakturretako kontzeptua hau da: «Agorregiko ontziolan eta errotetan emandako zerbitzuak». Aipagarria da Arreta-Pagoeta SL enpresak Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuarentzat eskaintzen duela zerbitzua 1996. urtetik, hau da, Gipuzkoako Parketxe Sarea fundazioa sortu baino askoz lehenagotik. Foru aginduak, generikoki, adierazten badu ere emandako dirulaguntza «Pagoetako parke naturaleko erabilera publikoko eta ingurumen hezkuntzarako programetan» erabiltzeko dela, errealitatean, diruz lagundutako programa Agorregiko multzo hidraulikoan ematen da bakarrik. Gertaera hori, 2017ko programa-egutegiaren eta memoriaren eta fakturen bitartez frogatu daiteke. Ez dakigu zergatik Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuak erabiltzen duen adierazitako kontzeptu hori. Behar bada, 1996. urtetik ematen delako zerbitzua, eta garai hartan horrela formulatu eta erabili zelako.

Fundazioak Arreta-Pagoeta SL enpresarekin 2017. urtean sinatuta zuen Iturrarango parketxeko arreta eta dinamizazio kontratuaren lizitazioan (004/2014 kontratazio espediente), zerbitzuaren helburua eta ezaugarriak deskribatzen diren atalean, ez da aipatzen Agorregiko multzo hidraulikoa ezta balioan jartzeko programa ere. Bakarrik «Agorregiko burdinola eta errotak» aipatzen dira parketxeari atxikitako instalazioak deskribatzen diren atalean. Bertan, adierazten da Kultura Departamentuari atxikita dagoen multzo bat dela. Parke Naturaleko lorategi botanikoa eta beste instalazio batzuk bezala, bisitariei Agorregiko multzo hidraulikoa erakusten zaie, ingurumen hezkuntzako programen barruan, parkearen aktibo bat bezala. Alabaina, lan horrek ez du zerikusirik Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuak ematen duen dirulaguntzarekin.

Agorregiko multzo hidraulikoa balioan jartzeko zerbitzua ez da eskaintzen eta ematen urte osoan. Aldiz, Iturrarango Parketxearen arreta eta dinamizazio kontratuaren barruan, Arreta-Pagoeta enpresak Gipuzkoako Parketxe Sarea fundazioarentzat eskaintzen dituen zerbitzuak, ingurumen hezkuntzako katalogoan sartuta daudenak, urte osoan eskaintzen dira. Egutegi eta ordutegi zehatzak ditu (Kultura Departamentuak urtero zehazten ditu). Abuztuan izan ezik, funtsean, larunbat, igande eta jai egunak hartzen ditu, martxotik abenduaren hasiera arte, eta ordutegia 11:00etatik 13:00etara artekoa da. Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuari ematen dion zerbitzua Agorregiko multzo hidraulikoa balioan jartzeko, doakoa da bisitari guztientzat. Aldiz, Iturrarango Parketxearen arreta eta dinamizazio kontratuaren barruan (Arreta-Pagoeta SL enpresarekin 2014. urtean sinatutako kontratua), fundazioak eman ohi dituen ingurumen hezkuntzako gainerako zerbitzuak kobratu egiten dira. Horren arrazoia da, besteak beste, Iturrarango parketxea ez bezala (Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuari atxikitako eraikina), Agorregiko multzo hidraulikoa Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuari atxikita dagoela; eta Iturrarango parketxearen kasuan ez bezala, ez dago inolako lagapen kontraturik Gipuzkoako Parketxe Sarea fundazioaren alde, eta horrek eragotzi egiten du fundazioak bisitariei tasa bat kobratzea emandako zerbitzuengatik. Izan ere, Iturrarango parketxean ez bezala, Agorregiko multzoko kontsumoak, mantentze lanak eta gainontzeko gastuak ez ditu fundazioak ordaintzen, Kultura Departamentuak baizik.



Azkenik, adierazi behar da 2019. urtean kontratu txiki bat sinatu zela (Iturrarango parketxearen arreta eta dinamizazio zerbitzuaren kontratutik kanpo) Gipuzkoako Parketxe Sarea fundazioaren eta Arreta-Pagoeta SL enpresaren artean, Agorregiko multzo hidraulikoa balioan jartzeko.

II.2 KONTUEI BURUZKO IRITZIA

“1.- Fundazioak ez ditu erregistratu Egoeraren Balantzeko “ibilgetua” eta “ondare garbia” idazpuruetan aurreko ekitaldietan jasotako ondasunen doako lagapenak (ikus A.2). Txostena egin dugun datan ez dago horien gaineko baloraziorik.”

ISMAR ASESORES, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren kontabilitateko erregistroak egiten dituen arduradun gisa, eta zure txostenean egindako adierazpenari dagokionez, Fundazioari lagatako ondasunen Egoera Balantzean erregistro falta dagoela alegia, argitu behar da ondasun bat Balantzean erregistratu ahal izateko, jabeek ondasun hori baloratu behar zutela lagapena egitean.

Orduan, akordioan esku hartu zuten entitateek ez zuten balorazio hori egin, beraz, Fundazioak ezin du bere kontabilitatean erregistratu baliorik ez duen zerbitu.

Bestalde, irabazi asmorik gabeko Fundazioa denez, finantzazio publikoaren menpe dagoena bizirik irauteko, uste dugu, duten izaera eta garrantziagatik, kalkulatzeko zailak diren ondasunak bere balantzean erregistratuek ekarriko lukeela ondasun horiek urtero amortizatzekeo betebeharra, ziurrenik zenbateko handi batean, eta horrek Fundazioaren jardueraren emaitzari kalte handiak eragingo lizkiokeela, izan ere, gastu handia eta irrealia sartu beharko bailuke, eta horren ondorioz, urtero, galera handiak izango bailituzke.

Uste dugu zentzuzkoa izango litzatekeela kontabilitateko erregistroa egitea, entitate batek, jasotako ondasunei esker, etekinak lortzen baditu, autofinantzatzeko edo irabaziak izateko aukera emanez, baina ez gaude kasu horretan. Fundazioa eratzeko arrazoi nagusiak ziren, batetik, parketxeen kudeaketa homogeneizatzea eta, bestetik, ondasun horien jabeek jaso ohi zituzten dirulaguntzak zentralizatzea eta modu eraginkorragoan birbanatzea.

Horregatik, ulertzen dugu erregistro hori ez dagokiola, baina, nolana dela ere, garai hartan lagapenaren baldintzak negoziatu zituzten entitateek baloratu beharko litzuketela”.



III. BARNE-KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

III.1 LANGILERIA

“Fundazioaren gerentearekin sinatutako lan-kontratua ohiko lan arloko araudiari lotuta dago. Baina, estatutuetan eta funtzioetan ezarritako ezaugarrien arabera, eta, Patronatuak, ebazpen arrazoituaren bidez, edozein unetan, kargutik kentzeko aukera duela kontuan hartuta, kontratuak goi-zuzendaritzako langileen lan harreman bereziari lotuta egon beharko luke (1382/1985 Errege Dekretua, abuztuaren 1ekoa).”

Legediak aipatzen du langile horiek lan egiten duten enpresaren titulartasun juridikoari dagokion ahal berdinak dituztela. Gainera, xedatzen du bere jarduketei eta erabakiei buruz autonomia eta erantzukizun osoz arituko dela, enpresaren antolakuntzari eraginez.

Bestalde, 1385/1985 Errege Dekretuaren 3. artikulua, arautzeko iturri eta irizpidei buruz xedatzen du:

Bat.- Goi zuzendaritzako langileen lan harremanari dagozkion eskubide eta betebeharrak, bi aldeen borontatearen baitan erregulatuko dira, betiere, Errege Dekretuaren araudiari eta aplikatu daitekeen araudiari lotuta.

Bi.- Lanagileen Estatuan jasota dagoen lan alorreko legediaren gainerako arauak aplikagarriak izango dira baldin eta errege dekretu honek espresuki adierazten badu hori, edo kontratuan berariaz jasota badago.

Hiru.- Errege dekretu honetan erregulatuta eto aldeek araututa ez dagoenari dagokionez, legedi zibillean edo merkantilean, nahiz horien printzipio orokorretan xedatutakoa beteko da.

Kontratu mota hau egiteko erabakia eta ez goi-zuzendaritzakoa aukera legitimoa da lan-zuzenbidearen arloan.

III.2 ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK KONTRATATZEA

“2017ko ekitaldian esleitutako 2 kontratazio espediente aztertu ditugu eta aurreko ekitaldietan esleitu arren, 2017ko ekitaldian egikaritu diren beste 4 kontratu, eta horien guztien 2017ko luzapenen zenbatekoa 339.417 euro izan da (ikus A.9); hona hemen xehetasunak:

- *Arantzazuko Parketxearen arreta eta dinamizazio zerbitzuaren eta Arantzazuko aterpetxearen erabilera eta kudeaketa (arreta eta dinamizazioa) zerbitzuaren espedienteetan (1 eta 2 espedienteak), 94.608 euroan esleitutakoetan, ez da justifikatzen balio-judizioaren mende dauden irizpideengatik eskaintzei emandako puntuazioa.”*

Kontratazio mahaiaren oharrak eransten dira.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- *“Fundazioak ez du eskatu parketxeen arreta eta dinamizazio kontratuetan kontzeptu bakoitzeko fakturatu beharreko unitateen xehakapena, edo emandako zerbitzuen zerrenda balioztatua, agiriekin agintzen duten moduan.”*

Hilabetero, parketxe bakoitzetik bidaltzen den partean, parkera bertaratu diren bisitarien datuak eta jarduera antolatuetan parte hartu duten pertsonen datuak islatzen dira (ikus eranskinak). Era berean, datu horiek hilero bidaltzen dira GFako Mendietako eta Natura Ingurune Zuzendaritzara.

Bestalde, fundazioaren webguneak (www.parketxesarea.org) parketxe bakoitzean antolatzen diren jardueri buruzko informazioa ematen du.

- *“Aztertu ditugun kontratuetan ikusi dugu guztira 246.443 euro ordaindu direla (aztertutakoaren % 65) 30 eguneko gehieneko epea gaindituta- Epe hori 3/2004 Legeak, abenduaren 29koak, merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriei buruzkoak, finkatzen du 4. artikuluan.”*

Fundazioak hiru dirubide nagusi ditu: GFaren ekarpenak (Mendiak eta Naturaguneak (aurrekontuaren % 63) eta Kultura (% 2)); udalen ekarpenak (% 13); eta antolatzen dituen jardueren sarrerak (%18). 2017. urtean, Kutzaren ekarpena gehitu behar da (% 4). Horrela, aurrekontuaren % 82a kanpoko ekarpenen bidez finantzatzen da, eta ez dira hilabetero gertatzen ezta modu homogeneoan ere.

Ekarpen nagusia (GFako Mendiak eta Naturaguneak), hiru zatitan bideratzen da: % 50, urtearen hasieran; % 30, hirugarren hiruhilekoan; eta % 20, abenduan. Udalen eta Kutzaren ekarpenak ekainean bideratzen dira. Kontua da ekarpenak eskatzen direnetik gauzatzen diren arte, behin baino gehiagotan hilabete bat baino gehiago igarotzen dela. Bestalde, hori ez da harrizkoa kontuan hartzen bada kasu gehienetan ekarpenak egiten dituzten entitateek izaera publikoa dutela, eta, ekarpenak izapidetzeko, ohikoak diren onarpen eta egiaztapen prozedurak bete behar direla, eta, askotan, prozedura horiek hilabete bat baino gehiago luzatzen direla. Beraz, sarrera gehienak kanpokoak dira eta fundazioak ez ditu kontrolatzen denborak. Fundazioak nekez kudeatu ditzake ordainketak denbora irizpideak guztiz endogenoak badira.

“Hona hemen alor honekin lotutako beste alderdi aipagarri batzuk:

- *Fundazioak esleitzen dituen kontratuak ez dira Sektore Publikoko Kontratuen inongo erregistrotan inskribatzen eta kontratatzailearen profila ez da kontratazioko inongo plataforman jasotzen, SPKLTBren 333 eta 334. artikuluekin agintzen duten moduan.*
- *Fundazioak urtero kontratatzen du aholkularitza zerbitzua. Traktu jarraituko kontratua dela aintzat hartuta, sozietateak lizitaziora atera beharko luke*



egiazko balioespen ekonomikoarekin bat datorren prozedura baliatuta eta lehia ahalbidetuko duen denbora mugarekin.

III.3 BESTE ALDERDI BATZUK

- *“Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea zuzen betetzeko, Fundazioak argitaratu behar lituzke aurrekontuak, izenpetutako hitzarmenak, urteko kontuak eta dagozkion auditoriako txostenak. Gainera, izenpetutako kontratu guztiei dagokienez, 8.1 a) artikuluan adierazitako alderdi guztiak argitaratu behar lituzke.”*

Web orria eraikitze prozesuan zegoen. Une hauetan, GFako Estrategia Digitaleko Zuzendaritzaren eskutan dago, web orria GFaren estandarrekin egitea nahi delako.

- *“2017ko ekitaldian aldaketa bat aplikatu zaio Zegamako Udalarekin izenpetutako hitzarmenari -Patronatuak 2016ko abenduan erabakitakoa-, baina lan honen datan oraindik ez da aldaketa hori izenpetu Udalarekin.”*

Zegamako Udalarekin sinatutako hitzarmena, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren Estatutuaren aldaketan islatuta dago. Aldaketa hori, José-Carlos Arnedo Ruíz notarioaren aurrean inskribatu zen, 2019ko maiatzaren 24an.

- *“Fundazioak erabilera publikoko eta ingurumen-hezkuntzako zerbitzuak ematen ditu Pagoetako Natura Parkean dagoen eta GFaren jabetzako eraikina den Agorregiko burdinolan; baina, ez da dagokion erabilera-lagapena tramitatu.*
- *Ez dira gaurkotu finantza-erakundean funtsak erabiltzeko sinadura baimenduak, izan ere, gerenteaz gain, 2011n kargugabetutako bi kidek dute sinadura.”*

Patrono berriak inskribatuta ez zeudenez, ezin izan zen hori egin. Baina une hauetan, sinadura baimenduak tramitatzen ari gara.



- *“Lizarrustiko Parketxean ostalaritzako lokala errentan hartzeko 2013ko kontratuaren arabera, esleipendunak Fundazioari ordaindu beharko dio, urteko 3.000 euroko zenbateko finko batez gain, zati aldakor bat; zati hori ez da urteko 3.000 euro baino gehiago izango eta ebaluazio-batzorde batek finkatuko du. 2017an zati finkoaren zenbatekoa soilik jaso da, ez delako ebaluazio-batzordea deitu.”*

Errentamendu kontratua sinatu zenetik, jardueraren errentagarritasun ekonomikoan ez da gertatu hasierako kanonaren aldaketa arrazoitu dezakeen inolako bilakaerarik. Beraz, ez da beharrezkotzat jo ebaluazio batzordearen deialdia egitea kontratua berrikusteko.





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ABREVIATURAS

DFG Diputación Foral de Gipuzkoa.

IIC Instrucciones Internas de Contratación.

TRLCSP Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.



I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas (en adelante el Tribunal), de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y en el Plan de Trabajo aprobado por el Pleno del Tribunal, ha fiscalizado las cuentas anuales del ejercicio 2017 de la Fundación Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioa (en adelante la Fundación).

Esta fiscalización comprende los siguientes aspectos:

- Legales: revisión del cumplimiento de la normativa aplicable en las áreas de gestión económico-financiera, personal y adquisición de bienes y servicios.
- Contables: conformidad de las cuentas anuales con los principios contables que le resulten de aplicación. La Fundación se encuentra auditada, por lo que nuestro trabajo ha consistido en una revisión de los papeles de trabajo de los auditores, realizando, en su caso, las pruebas complementarias que hemos considerado necesarias.
- El alcance del trabajo no incluye un análisis de la eficacia y eficiencia del gasto. No obstante, las deficiencias detectadas se detallan en el epígrafe del informe denominado “Consideraciones sobre los sistemas de control interno y procedimientos de gestión”.

La Fundación fue constituida mediante escritura pública el 23 de diciembre de 2009, e inscrita en el Registro de Fundaciones del País Vasco el 10 de mayo de 2010. La dotación patrimonial inicial ascendió a 39.000 euros, constituida por las aportaciones dinerarias de las entidades fundadoras:

| ENTIDAD FUNDADORA | Miles de euros Importe |
|--|---------------------------|
| DFG..... | 30 |
| Fundación Bancaria Kutxa-Kutxa Banku Fundazioa | 5 |
| Ayuntamiento de Aia..... | 1 |
| Ayuntamiento de Ataun | 1 |
| Ayuntamiento de Oiartzun | 1 |
| Ayuntamiento de Oñati | 1 |
| TOTAL | 39 |

En 2014, al incorporarse a la Red de Parketxes el centro de interpretación del Caserío de Anduetza, el Ayuntamiento de Zegama entra a formar parte del Patronato realizando una aportación a la dotación fundacional de 1.000 euros.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A 31 de diciembre de 2017 los miembros del Patronato de la Fundación son 11:

| Patronos | Representantes |
|--|----------------|
| DFG | 4 |
